

Erraldoiak

Erraldioen sorrera mitologiaren ondasun aberatsean galdurik agertzen zaigu. Jainkoen semeen eta gizakien alaben arteko nahaskeriatik jaio dira erraldoiak, eta honek argitzen du, hain zuzen ere, beren erraldoitasuna. Antza denez, Tesalia Haranean eman zen erraldioen eta Jupiter-en arteko gatazka eta, Dante Alighieri-k diotenaren arabera, antzinekoen uztez Etna-tik ihes egingdako ke eta sugarrak Tifeo erraldoiaren arnasa besterik ez ziren. Eta espekulazio alor honetan buruhaundiak edo epotxak ere gogoratu behar, eta esan ohi da lurpeko mehatzetan lan egiten dutela eta kanpora ateratzeko, zuhaitzaren enborrak bere barnekaldean daraman mailadiaz baliatzen direla.

Benetazko munduari zertxobait hurbildu nahiz, erraldioen errepresentazioa eta sinbolismoa ugaria eta aberatsa dela esango dugu. Zenbaitentzat, erraldioen jatorria, nekazal ekonomia zaintzen zuten mundu sumeriarreko jainkoak duintasunaz errerepresentatzen dituzten garaiera haundiko irudiak altxatzean datza. Eta mundu honetan gauza orok bere buelta duenez, ildo honetatik esango dugu erraldoiak erre ere egin izan direla zorigaiztoko gertara baten adierazgarri bezala, uzta txarrak, izurriteak, etab.

Yubal –Cain-engandik hasita zazpigarrena belaunaldian– zitarra, flauta eta gainerantzeko musika tresnak jotzen zituztenen aita da. Eta hemen festa agurtuko dugu eta erraldoiak dantzan dakuskigu.

Erraldoiak iraganeko Corpus Christi festaren ospakizunekin identifikatzen dugu, eta gaurkoan, Juan Bataiatzaile Donea gure patroia ohorez egiten diren ospakizunekin.

Ignacio Baleztenak kontatuta dakigu 1657. urtean gure herrian erraldoiak egin zirela Iruñearako. 1657. urte inguru hartan, azaltzen digu idazle nafarrak gaiak eskaintzen duen baregarritasunaz, bizi zen Tolosan Fruntzisko de Azpillaga izeneko herritar ondradu etu alaitsua, bere aberriaren ospezko historian orri sorta betetzeko bezain duina den gizasemea, ere bere betekizuna mundu goibel honetan zorigaiztoko gizakion bizi alaitzea izan bait zen, erraldoiak, buruhaundiak eginez eta seriotasun gutxiago ez duten beste eginkizunak.

Gure Udal Artxibategian izan bada 1677. urteko aipamena Corpus Christi egunean atera ohi ziren erraldoiei buruz, eta 1778ko Ekainaren 29koa da ondorengo apuntea: *Corpus festetarako erraldoi berrien eta irudiaren kopuruagatiko igorpena*. Badira geroztik jasotako zenbati erreferentzia ere.

Festa askok eta askok berezko ditu erraldoiak, eta bertan izatea atsegina eta aierugarria suertatzen da. Txistu edo dultzainaren musikaz lagundurik, inguruan buruhaundi edo epotxa bihurri eta jolastariak dituztelarik, erraldoiek airoski dantzaten dute eta ederki pasa ere beren kale-alaitasun kutsakorra agertuz, guretzako hain ezaguna. Izan ere, gure herriko erraldoi eta buruhaundien eskuhartzea bait da, beren izenez ezagutzen ditugunak eta gure artean itsatsirik daudenak.



Erraldoiak = Los gigantes / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Tolosa San Juan Jaiak 1989*. – Tolosa : Tolosako Udala, 1989. – [12] p. : il. ; 21 cm. – P. [10, 12]. – OC. T. 4, p. 461-463